



Martuteneko futbol zelaiko belar artifiziala uda honetan berrituko da

Kontratazio publikoaren prozesuaren barruan proposamenak aurkezteko epea amaituta, hiru enpresak lizitatuko dute obra hori egiteko

Martuteneko Udal Futbol Zelaiko belar artifiziala aldatzeko prozesuak aurrera jarraitzen du, eta dagoeneko amaitu da proposamenak aurkezteko epea, duela hilabete batzuk abian jarritako lizitazio publikoaren prozesuaren barruan.

Azkenik, hiru enpresa (Fierturf Poligras, Obras y Pavimentos Especiales eta Pocana 2011) izango dira kontratu hori lortzeko lehian arituko direnak, aurrekontua 335.000 eurokoa izango da eta bi hilabeteko epea izango dute. Lanak udan egitea aurreikusten da, kirol denboraldi berriaren hasieran erabiltzeko prest egon dadin.

Horrela, Donostia Kirolak udaleko futbol-zelaiak hobetzeko planarekin jarraitzen du. Horren harian, Kiroletako zinegotzi Martik Ibabek gogorarazi du, 2018an Berioko belar artifiziala berritu zela eta, gaineratu du, aurreikusia dagoela, epe ertainean, César Benito eta Matigoxotegi udal zelaietako belarra aldatzea eta, halaber, zelai berri bat eraikitzea Merkear aldean (Altza).

Martuteneko futbol zelaia

Orain dela 22 urte eraikitako belar artifizialeko udal zelaia da, 1997an hondar-futbol zelaia zaharraren gainean egin zen, eta 2013an hainbat hobekuntza-lan egin ziren, besteak beste, belar artifiziala aldatzea. Gaur egun, CD Martutenek kudeatzen du futbol zelai hau, eta hiriko hainbat futbol-talde erabiltzen dute. 2018an 45.000 izan ziren instalazio honetan erregistratutako erabilerak.